

AMERIKETAKO OSABA

Ameriketako otto Domingo – Gaxuxa – Margaita, haren alaba – Luixa neskatoa –
Andere Mayie – Graxiana Luixaren adixkidea – Geexene auzoa - Maddalen

LEHEN ZATIA

GAXUXA eta MARGAITA

MARGAITA: Beaha ama nola khausitzen nuza?

GAXUXA: Xoragarria, zer soineko ederrak...

MARGAITA: Ez, hunki zazu Ameriketako ottok igorri kasaka hunen goxoa.

GAXUXA: Goxoa, beroa, pollita denak baitin eta burutik oineraraino oro araberan ditun.

MARGAITA: Eta nihaur ez niza pullita?...

GAXUXA: Izar bat, ora artino ere ez hizan batere gaizki, bainan luma edertzen din txoria/ Nork behar zuen erran Margaita Otxolo holako anderea bilhakatuko zela.

MARGAITA: Gaixo Ameriketako otto, zoin maite dutan... Zuk ama esteka zazu bada, bazin hori eta beso punta horiek beheiti hola...

GAXUXA: Ouf. Hatsa tapatzen zautan, ez nitaken soineko eder haukier usa, zer nahun duela hilabete bat oraino bokheta latsale ginitunan.

MARGAITA: Ez bethi aipa aitzinean zer ginen, goazin oraiko bizitza moldea.

GAXUXA: Egiaren erraitzeko ez dun ez hil behin ere lanari min handirik egin, ni nindunan ba ari ithurriuan bustia eta saski oihalekin borroka hi bethi irakurtzen gerthakari batzuen.

MARGAITA: Sendi nuen andere bizitzeko sorthua nintzela.

GAXUXA: Eta hala gertatu.

MARGAITA: Ea, nik irakurtzen nintuen geietan ere, bethi hala zen.

GAXUXA: Ez zionat sinhets egia dela iduritzen zautan ametsetarik ari nizela.

MARGAITA: Iratzartua zire segur, ez ditugua jadanik hunki 800.000 libera?

GAXUXA: Haretatik zafratuxiak ditiun.

MARGAITA: Hortako ziren osabak berak erraiten zaukun hura jin artinoko lehen gastuentzat zirela. Ala bainan behar ginen beztitu eta etxea antolatu.

GAXUXA: Eta oro galta ginintinan. Soineko, mihise, baxera, mubla, hots, denak errumesak ginintunan ezin gehiago.

MARGAITA: Orai dena baitugu, neskatoa ere bai.

GAXUXA: Ez nitaken hari usa, batere ez gininan horren beharrik.

MARGAITA: Ez, segurki otto aberatsaren errebitzeko, oro harrituak daude gure kanbioari.

GAXUXA: Guhaur lehen-lehenik. Ez ginaukinan deusere Domingoren gainean. Ezkondu eta, Pettan ene sehar zenak, hire aitak, aipatu zautanan harta doa bazuela anaia bat Ameriketara, baina ez baitzuen sekulan berririk igrotzen arrun ahantzia ninan eta orai uste gabetarik berri burxoragarri hori.

MARGAITA: Zonbat jeloskor ahal dugun.

GAXUXA: Ba, bainan aitzinerat denek entrada lehen behatzen ez zakutenak ere orai agur eta irri.

MARGAITA: Nik aldiz burua gora eta murga handi.

GAXUXA: Bakotxak bere aldi.

MARGAITA: Eta betebetan zer arrakasta dutan aitzinean Lurhandiko etxekanderea ikharan zagon beldurrez haren seme Kaiet nitaz agrada zadin eta orai Margaita gaixoa harat, Margaita maitea hunat, baina nik khasurik ez.

GAXUXA: Uste ninan Kaiet gostukoa hirela.

MARGAITA: Lehen ba, eder izanen zautan etxe on hortan etxeko andere sartzea. Bainan orai ertze hixtu baitughu ez nuke deusetan nahi muthiko pedoil hori.

GAXUXA: Ah. Hori dun...

MARGAITA: Eta Bettiri piloteriak... ez zautan lehen behatzen ere, eta orai phondu pollit bat egiten den aldi guziez, eni buruz itzul eta eskuarekin kheinu.

GAXUXA: Hura muthiko edderra dun.

MARGAITA: Ba, bainan zuk doidoia erraten zinuena, bakhoxak bere aldi, orai nik dut burua itzultzen.

GAXUXA: Beraz nor hauta hezake...

MARGAITA: Orai... badakizu andere Karolinen etxerat heldu diren illoba Donibadarra.

GAXUXA: Ah, ba Andere Maddi eta haren anaia margolaria.

MARGAITA: Han zira, Luis du izena hura zaut biziki gustatzen.

GAXUXA: Ez dun garen menturarik, heiek sortze handikoak ditun.

MARGAITA: Zuk zer dakizu, diruak mugak ezeztatzen patarrak ordokitzen ditu. Bertze alde arras xeihiak dira.

GAXUXA: Ez dinat erten bain...

BERAK ETA LUIXA – ANDERE MAYI

LUIXA: Gaxuxa.

MARGAITA: Luixa errazu Anderea

LUIXA: Anderea, Anderea.

MARGAITA: Ama.

GAXUXA: Ah ni niza anderea

MARGAITA: Bixtan da.

GAXUXA: Ez zionat har, orai arte Gaziuza Otxola bainintzen.

MARGAITA: Hots, ahantz zazu (*neskatoari buruz*) Zer da?

LUIXA: Norbait bada hor zu ikhusi nahiz.

GAXUXA: Eta nor?

LUIXA: Andere gazte bat. Hura haratik errotik anderea da.

MARGAITA: Gu ez girea hala?

LUIXA: Ba, bo, bainan andere Gaxuxak berak erran du ez dela oraino usatua.

MARGAITA: Ixil... eta sar arraz zazu.

GAXUXA - MARGAITA

GAXUXA: Andere handi horren aitzinean nola behar niz egon.

MARGAITA: Jar zaite hor alkhi gozo eder hortan eta ez mugi, ni hemen. Ez zauzue iruditzen huntan sorthuak girela?

GAXUXA: Ez segurki, aiseago nindunan ene ttotto ttipian jarria, eskalapoinak oinetan ezin zapeta haukietan sangoak preso... Ai, ai, katxoak.

BERAK – ANDERE MAYI

MAYI: Agur andereak

BIAK (*xutitu gabe*): Bai zuri ere.

MAYI: Ttantta Karolinak igortzen nu, jakiterat haren undar bokhetako oihalak zer bilhakatu diren.

GAXUXA: EZ dakit, aberastu bazen laster eman nintuen etxeko oihal zikhin guziak Dominica Ithurriondori. Nik uste ez ditu oraino denak bokhetatuak baitzen andaran handi bat.

MARGAITA: Eta dudarik gabe berak aitzinean hartuak egin ditu lehenik.

MAYI: Ba. Hori da.

GAXUXA: Nik ez dut deuserik gehiago egiten, ez baitut orai lanean hartzearen beharrik.

MAYI: Ah, aditu dut zuen berri ona eta atsegi handi dut.

MARGAITA: Guk ere segurki.

MAYI: Ez duit dudarik, beraz Ameriketako osaba heldu zauzue?

MARGAITA: Eta laster, egun guzietz behar gaude.

MAYI: Ah, baiaa? Ikhusi nahia ahal duzue ez duzue ezagutzen?

GAXUXA: Ez batere juana zen ni ezkont aitzin.

MAYI: Eta ez da alfer egon.

MARGAITA: Arras ez, diruz kargatua heldu zauku.

MAYI: Nik ere aditua dut biziki aberatsa dela.

MARGAITA: Ba puxanta, emanak dauzkigu jadanik frogak.

GAXUXA: Eta emanen.

MAYI: Ohartua niz nola denak khanbiatuak dituzun, ageri da ez duzuela dirua izartuz.

MARGAITA: Ez xahu ahal baino, gehiago badugu.

MAYI: Zuek zarezte haren ahaide hurbilenak?

MARGAITA: Ene aita zenaren anaia bakharra da.

MAYI: Eta orai aldeat heldu da hunat egoiterat?

MARGAITA: Ez gira ez nik uste hemen egonen sor lekhuari behako bat eman eta juanen gira beharbada hirirat.

GAXUXA: Harrek orai adin pozi bat badin eta nahiko din segur hemen egon.

MAYI: Baditake aise xoko hau maitea da, eni ere biziki lakhet zaut ttatta Karolinen etxen.

MARGAITA: Noiz arte jina zira?

MAYI: Itultzen naiz berheala anea etxen baitut zombait egunentzat.

MARGAITA: Hura nun dago?

MAYI: Parisen ari da lanean.

MARGAITA: Hemen ere ari izan da juan den udan, ikhusi dute gure erreka hunen itxuraren iten, eta zoin ederki...

MAYI: Ba eta hura igorri du au Salon d'Hiver.

MARGAITA: Zer andere Karolinen salhonean?

MAYI: Ez, ez Pariseko toki berezi bat da, eta han hautatua izan du bertze hanitzen artean.

GAXUXA: Ez ahal zakon itsusi.

MAYI: Ez loriatua da.

MARGAITA: Eta gero saltzen ditua bere potret horiek.

MAYI: Zombait ba, ez hanbatik zeren balio handikoak baidira.

MARGAITA: Otto jinen denean erosiko daizko ederrenak eta kharioenak... Ah zaude ene potreta eginarazten banako?

MAYI: Ba, eginen dautzu helduden udan.

MARGAITA: Ez, ez orai berean, segur niz deusek ez lezakela atsegin gehiago egin ene osaba aberats eta maiteari eta saritzat emanen daizkot galdeginak eta gehiago.

MAYI: Baina zure itxuraren orai egiteko jin behar zinitaizke Donibanerat.

MARGAITA: Bon, jinen naiz.

MAYI: Ezagutzen duzue nehor Donibanen?

MARGAITA: Ez nehor

MAYI: Beraz nun jautsiko zira?

MARGAITA: Ez dakit, ez dut piaiatzeko usaiarik.

MAYI: Gisa hortan hobe duzu uda idurikatzea.

MARGAITA: Ez, ez nahi dut osabari orhoitzapen hori lehen bai lehen egin. Errazu Andere Mayi, ez litakea zure etxen xokoño bat enetzat?

MAYI: Gure etxen?

MARGAITA: Ba, bizpahiru egunentzat, doi-doia.

MAYI: Zato beraz.

MARGAITA: Noiz juhan zira?

MAYI: Berheala ez dut anaia bakharrik utzi nahi.

GAXUXA: Bainan otto jinen zaukun gutien ustean hemen egon behar hiz.

MARGAITA: Ez dakizu xuxen noiz heldu den menturaz ene itzulia eginen dut hura ethorri aitzin. Eta artean heldu baliz zu hor zinitaizke errezebitzeko. Laster itzuliko niz. Juhan niz andere Mayirekin behar ditudan phuskak hartu eta.

MAYI: Untsa da idurikatzen zaitut ttantta Karolinen etxean zato laster.

MARGAITA: Ba, ba jinen niz zalhu-zalhu.

GAXUXA, MARGAITA, LUIXA

MARGAITA: Zer diozu ama, ni horien etxerat agian Luis nitaz agradatuko da.

GAXUXA: Egin zitaken aise, gaztea, aberatsa, pullita, zer behar da gehiago afint hadi untsa, denak erraus ditzanan.

MARGAITA: Luixa, Luixa.

LUIXA: Heldu, heldu.

MARGAITA: Juan behar niz zenbait eguentzat "Villa Bichta eder" Donibanerat Andere horren etxerat.

LUIXA: Zu horren etxerat eta zertarat?...

MARGAITA: Adiskide gixa

LUIXA: Aha

MARGAITA: Zer duzu?

LUIXA: Deusik ez.

MARGAITA: Alon higi zite eta lagun nezazu muntatzen, ezakitzu ene larruzko zaku eder hartan ganberako mahaiaren gainean ditutan gauza pullit heiek guziak eta gauzko athorra urdin exkina oxkatatua ez ahantz, erna hortik.

LUIXA: Ba... ba...

MARGAITA: Zuk, ama, lagun nezazu hunen jauzten. Hauk oro erosiak nintuen ottorekin piaiatzeko eta baliatzen ditut uste baino lehehn eta norat juaiteko. Iup... Orai ezpainak gorri biloa antola sal bixtan behar niz.

GAXUXA: Hala hiz segurki, badun hogoi eta bortz hi baino gaizkiago denik.

MARGAITA: Ah ez dut moltsa ahantzi behar.

GAXUXA: Arinduxia diun.

MARGAITA: Bada oraino ene itzuli horako gatzuen haizki itekoa baino gehiago.

LUIXA: Horra andere Margaita.

MARGAITA: Denak ekarri dituzu?

LUIXA: Ba, denak.

(*Txilintxa*)

MARGAITA: To, nor da hor?

GAXUXA: Zazi ikhusterat Luixa

MARGAITA: Ah ez ahal da otto balinba.

GAXUXA: Zertako ez, nik ikhusi nahia dinat.

MARGAITA: Nik ere ba, bainan ez itzuli hori egin artino.

LUIXA: Hau eman dautate.

MARGAITA: Zer othe da. Agian ez du orrok gibelerat egin.

GAXUXA: Ez zakinat irakurtzen, no hik egizan.

MARGAITA: "Ama, eri handi zatozte berheala. Katixa".

GAXUXA: Oh, ene ama gaixoa. Goazen harenganat denak utzirik.

MARGAITA: Ni ez segurik

GAXUXA: Beraz hago hemen ottori igurikatzeko.

MARGAITA: Ah, ez ez, Andere Mayi ene beha dago harekin juango niz.

GAXUXA: Baina otto heldu bada etxea hutsik khausituko din, hemen egon behar hiz.

MARGAITA: Ez, ez dut padara hori huts egin nahi. Zer? Osaba zahar baten errumatismoen tratatzeko eta haren kharruken eta arrainguren aditzeko, ez, ez, ez. Ez luke baho aberastea on guzien huts egiteko eta kalte guzien hatxeimateko.

GAXUXA: Haugi beraz enekin ottok ikhus lezaken gure ezinbertzea.

MARGAITA: Erran dautzut ene bidean juanen nizala, zaude zu nahi balinbaduzu.

GAXUXA: Hori ez, zer? Ene ama gaixoa beharbada azken hatsetan eta ahizpa Katixa bakhar-bakharrik harekin... Oro utzirik harat juhan nun.

MARGAITA: Zazi beraz, Luixa hemen izanen da ottoren erretzebitzeko. (*LUIXAri buruz*) Aski dakozu ttantta Katixaren galde hori erakustea eta erraitea biak han girela, orai juhan niz.

GAXUXA: Jainko maitea, ez da bethi nahi dena egiten hurrekin.

LUIXA: Hunekin segurik ez.

GAXUXA: Ba... Haur on bat da halere.

LUIXA: Ile alde ferekatuz.

GAXUXA: Ni ere banoa, Jaun Amerikanoa jiten denean ez ahantz hunen erakustea.

LUIXA: Biak hor zireztela behar duta erran?

GAXUXA: Bixtan da. Bertzela zer phentsa lezake.

LUIXA: Deus onik ez.

GAXUXA: Hori da, untsa artha zazu eta erran laster itzuliko garela.

LUIXA: Eginen ditut denak ahal bezain untsa.

GAXUXA: Sinhesten zitut. Gaixo Luixa. Ondoko egunetan orhoituko naiz zutaz. Hartzen dut gakho bat, horra bertzea. Lehen athea bethi zabal-zabal ginuen. Bainan orai, bertze aihu baitugu hets untsa. Beraz erran bezala Luixa.

LUIXA: Zaude gostuan Andere Gaxuxa.

LUIXA: Zer anderea. Eta bertzea zer putikoa. Orai ni naiz hemen Etxeko Andere dugun ikhus Margaitaren kasaka hunekin zer itxura nukeen? Hura bezan andere izari on.

(*Txilintxa*)

LUIXA: Nor dut hor? Delako Amerikanoa othe da? Dugun ikhus. To, hi hiza Graxiana? Nun harabila?

GRAXIANA: Ikhusirik hire etxeok johan bat bertzearen ondotik jin nun hire ikhusterat.

LUIXA: Arras untsa egin dun.

GRAXIANA: Zer anderea. Zer hiz hi ere osaba famatuaren ohoretan aphaindua.

LUIXA: Ba, no bakharrik bainintzen ezarri ditinat denbora phasa Margaitaren soinekoak.

GRAXIANA: Ez hi ikhusten.

LUIXA: Hik erran egin lezaken oihu eta zalaparta.

GRAXIANA: Hartako hien beraz athea gakhotua.

LUIXA: Ez, Gaziuzak agina zinan, aberastuz geroz ohoinen beldur dun.

GRAXIANA: Eta guk zabal-zabala utzi diun.

LUIXA: Ez gitine ez airatuko.

GRAXIANA: Norat joanak ditun.

LUIXA: Gaziuza bere ama eri handi dela galdea ukhanik eta Margaita Donibanerat "*Villa Bichta Eder*".

GRAXIANA: Zer? Andere Mayiren etxerat? Zer andereak bilhakatu zaizkizun bet-betan gure bokhete latsaleak.

LUIXA: Aski hanpatuak ditun...

GRAXIANA: Eta Margaita nola ez da egon bere osabaren behar?

LUIXA: Amak nahiko zinan, bainan ez zunan segurki hartarik ari. Zer potroa. Ikhusi bahu uztarka erranez: ez, ez, ez, ezniz padara hori huts eginez egon nahi osaba zahar haren goait.

GRAXIANA: Aditu balu...

LUIXA: Hik erran.

GRAXIANA: Ez zinan nik uste haren ondoriotasunaren pailirik izanen.

LUIXA: Ez segur, baina haren aitzinean bertze bat izanen dun... Holaxer ariko zakon. *Gaixo otto, ikhusi nahia zinintudan. Denek utz nitzaizke zurekin egoiteko otto gaixo-gaixo, zoin maite zaitudan.*

OTTO: Nik ere ba, illoba gaixoa.

LUIXA: Zer?

DOMINGO: Nik ere maite zaitut.

LUIXA: Zer?

DOMINGO: Ba zu, eta nik ere ikhusi nahia zinindutan.

LUIXA: Ni?

DOMINGO: Ba, ba zu ene illoba.

LUIXA: Ni zure illoba? Arras durduzatua niz.

DOMINGO: Zu eta ez bertzerik.

LUIXA: Alo, hobe segurki. Zer atsegina holako osaba baten zerutik erortzea.

DOMINGO: Zuk errazu, orai arte egon gira batere elgarren berririk jakin gabe.

LUIXA: Ba, ba batere.

DOMINGO: Eta orai zer neskato gazte ederra khausitzen dutan ez nuen bertzerik hautatuko.

LUIXA: Alo, hobe segur.

DOMINGO: Nik igorri kasaka duzu soinean zoin untsa johan zautzun.

LUIXA: Ba, iduri du enetzat egina.

DOMINGO: Bertze hori nor duzu?

LUIXA: Adixkide bat.

GRAXIANA: Orai bere burua hemen oxolu khausitzen duena.

DOMINGO: Ez zitut khasatu nahi, egoiten ahal zira.

GRAXIANA: Ez, ez niz sarthu nahi zure ahidetasunaren artean.

LUIXA: Untsa dun Graxiana utzan hori ere gain, ni akomatuko nun ene osaba berriarekin. Ikhusi arte.

GRAXIANA: Ba, ikhusi arte

LUIXA ETA DOMINGO

DOMINGO: Ama nun duzu?

LUIXA: Juana, galdea ukhanik bere ama eri handi denarenganat, hori beha.

DOMINGO: Ikhusten dut, eta zu egona ere errezebitzeko.

LUIXA: Dudarik gabe, eta zuren egin ahala bezen untsa arthatzeko.

DOMINGO: Zer haut maithagarria, on egiten daut holako salsen aditzea, orai arteiona bizi izan naiz bakhar-bakharrik bethi lanean batere goxotasunik gabe.

LUIXA: Beraz atsegin duzu ene ezagutzaren egitea?

DOMINGO: Atsegin handi.

LUIXA: Nik ere ba.

DOMINGO: Hobe, gisa hortan denak untsa dohatzi.

LUIXA: Ezin hobeki.

DOMINGO: Etxea nola khandidatu khausitzen dutan.? Nahiagoko nuen hatxeman nik uztean bezala... Hemen alkhis, aphaino bat zen, ama gaxoarena hotxetan nahas bat han gure pusken tokia, beraie errumes bainan goxoa... Aspaldi kanbiatua duzirea.

LUIXA: Ez orain zure hiteko.

DOMINGO: Alo, jakin banu igorriko nautzuen etxea ez hunkitzeko nik ikhusi arte.

LUIXA: Ez ziren hartarik ari.

DOMINGO: Nor?

LUIXA: Erran nahi dut ama ez zela hartarik ari, ez zakon zuretzat deuserik sobera.

DOMINGO: Ikhusten dut xede onez ari izan dela.

LUIXA: Hartuko duzia zerbait.

DOMINGO: Ez, ez dut deuseren beharrik untsa bazkaldua niz... Hemen egoiteko orde huan bagine amarenganat.

LUIXA: Ah, ez, ez ez harat...

DOMINGO: Zer duzu?

LUIXA: Ba... badakizu eritasunak izigarri joiten nu eta ez nuke amabitxi hain hortan ikhusi nahi. (*Nigarrez*) Gaixo amabitxi.

DOMINGO: Ixil ziten gaixoa juaenen gira beraz; itzulino bat bertze norapait.

LUIXA: Ah ba arras on eginen daut hemendik atheratzean... zoin goxoki ibiliko giren biak elgarrekin.

DOMINGO: Eta gure ezagutxaren ohoren, galda eni nahi duzuna, ez zaut zuretzat deusere sobera izanen.

LUIXA: Oh. Ez dut sekulan asmatu holakorik gertatuko zela. Juan aitzin behar ditut leihoak hetsi aski errana baitzautan, Ga...

DOMINGO (*betan*): Amak?

LUIXA: Amak, ba amak.

DOMINGO: Nik hemen iduratuko zaitut (*LUIXA ateratzen da*) Behar dut hitz bat utzi Gaxuxarentzat. Heldu denean, zer phensa lezake etxea hetsia, alaba falta (*izkiriatur*). "*Ez zitela grina Gaxuxa enekin ereman dut Margaita. Zonbait egunentzat Hotel Euskalduna Hendaiarat. Otto Domingo*". Hola jakinen du non giren.

LUIXA: Hara ni.

DOMINGO: Goazen beraz zonbait egun goxoren eremaiterat elgarrekin.

LUIXA: Egia duzu gero geroko gisa

BIGARREN ZATIA

GAXUXA eta GEREXENE

- GAXUXA:** Ai. Ei. Ai. Ei. Atsegin hartzen dut etxean sartzea (*jartzen da*). Ai. Ei. Ai. Ei. Ene katxoak eta tipulak (*txapela kentzen du eta phausatzen ottoren hitzaren gainean*). Oh burua txapel hunekin iduritzen zait gazte denbora bezala pegarra dutala buruan (*bazkina idekiz*). Ouf. Hatsa. Bethi soineko lazo eta espartin zabal batzuekin usatua zernahi ikhusten dut gauza junt hauekin... Ez niz ba andere izaiteko sortua... ez nu Margaritak aditzen... nun othe dut Luixa? (*oihu*). Luixa... Luixa.... Atheratua da nik uste gaixoa, nik erran bezala etxia untsa hetsia zuen.
- GEREXENE:** Nun zirezte hil ala bizi zirezte. Azkenean athea idekia khausitzen dinat, juan den egun horietan izan nun zonbait aldiez eta etxea bethi hetsia tin-tinka. Denak falta.
- GAXUXA:** Luixa hemen zunan.
- GEREXENE:** Ez, ez zunan sekulan nehor.
- GAXUXA:** Errana bainion athea untsa hesteko etxe guzia egin din dudarik gabe untsa baino hobeki egiteko.
- GEREXENE:** Zer da beraz ilhunbean egon antzara gizenen gisa.
- GAXUXA:** Gaixo haurra.
- GEREXENE:** Eta zuek nun zinezten?
- GAXUXA:** Astelehenaz geroz etxean nidunan ama eri handi zela galdea ukhanik.
- GEREXENE:** Ah eta nola utzi dun?
- GAXUXA:** Arraz polliki bere bulta zarra garhaitu din.
- GEREXENE:** Hobe segurki, ez dun usthela.
- GAXUXA:**Erran ziteken.
- GEREXENE:** Ni ere astelehenean Xoxefinaren etxean nindunan txerri lanen egiten eta jinez geroz bethi hunat behar nagon, noiz ikhusiko dudan Domingo. Egina ninan haren bideat joanak zineztenez?
- GAXUXA:** Ez hemen idurikatuko diun.
- GEREXENE:** Arras ikhusi nahia dinat, ene lehen auzoa, hurrean elgarrekin jostatuak ttipiko adixkideak ez ditun ahanzten muthiko gozo bat zunan.
- GAXUXA:** Ez dun nik uste khanbiatu.
- GEREXENE:** Agian ez, eta horiek oro hola? Margaita Katixaren laguntzeko egon dea?
- GAXUXA:** Ez hura ez zunan enekin. Andere Mayik juana din Donibanerat.
- GEREXENE:** Zertarat?... Orai ez din sehi egoitearen beharrik.
- GAXUXA:** Arras ez, adixkide gisa dun han.
- GEREXENE:**Hago ixilik hortik. Zer uste duzue ala zonbait soso duzuelakoz gradoz igan zareztela?... Zuetarik eta nitarik jende handi guti...
- GAXUXA:** Margaita gutarik bertzelako dun bere irakurtzetan haniz ikhasi din.
- GEREXENE:** Haren jakitatea axalekoa dun ba nik uste... Eta zer ari da Donibanen?
- GAXUXA:** Deuserik ez, Louisek egin nahi zinan garen potreta.
- GEREXENE:** Ah ba, orai ikhisten dinat berak galdeginik?
- GAXUXA:** Batere, margolari handi horiek gautatzen ditine neskato pullitak heren itxuraren egiteko eta Margaita haietarik dun.
- GEREXENE:** Orai artino ere hola-holakoa zunan eta nehor ez hakon ohartu.
- GAXUXA:** Bainan orai bertze bat dun.
- GEREXENE:** Xo, xo, xo, ez eni holakorik erran ni axeri xaharra nun, bera dun hoan estakuruka Luisen ondotik. Gaixo enuxente, ez din haren menturarik.
- GAXUXA:** Batere ez dakin, aberastuz geroz gaitzeko arrakastak ditin.
- GEREXENE:** Askiko din bat, eta hura ona.
- GAXUXA:** Zar huke behar bada hik ere hire semearentzat nahi?
- GEREXENE:** Jainkoak beira gitzala holako emezte ailisetik... Gure Totek bere iduriko emazte solido eta langilea hartuko din.
- GAXUXA:** Hola erran behar dun.
- GEREXENE:** Zinez ari nun eta.
- GAXUXA:** Ixil, urhats bat aditzen dinat, Luixa dun nik uste. (*Gora*). Zu zirea, Luixa?
- MARGAITA:** Ez ni niz.
- GAXUXA:** Oh hor hiza Margaita hobe segur. Hola ottoren arribadako biak hemen izanen gaitun.

MARGAITA: Ez da beraz jin?

GAXUXA: Orai erraiten zautanan Geexenek astelehartez geroz bethi hunat so zagola eta ez duela nehor ikhusi. Gu astelehen arrataldean juanak, beraz ez dun oraino jin.

MARGAITA: Ikhusten duzu untsa egin dutela ene adixkiden gonbitua baliatzea.

GEREXENE: Adixkideak ba, utz nezazue irri egiterat zuen zozokeriei...

GAXUXA: Zer dun, hik nahi ala ez hala ditun.

GEREXENE: Alon, alon, Gaziuza ez eni holakorik erran.

MARGAITA: Gaziuza, erra bederen Gaxuxa.

GEREXENE: Ba, orai plantatuko nun esku larruak soinean zueri mintzazeko ez zireztela othoi hola enuxent, denek irri egiten dautziete.

GAXUXA: Jelosiaz ari ditun.

GEREXENE: Bazitakan ba hartarik ere poxi bat baden, bainan egon bazinezte laño-lañoak, jedeak ez zitunan bederen zuetaz trufatuko.

MARGAITA: Jendearen errana berdin zauku.

GEREXENE: Aitzinean zihaur zinezten lehen-lehenak irriz ari murgadunez eta orai denak bano eriagoak zirezte.

MARGAITA: Zuri zer juhan zauzu?

GEREXENE: Eni ieus ez, egia dun bainan adixkide gisa ari nun.

MARGAITA: Adixkide... orai badugu bertzerik.

GEREXENE: Diruak arras burua jo dauzirete, ez ahal zakon balinba Domingori holakorik egin.

MARGAITA: Baduzu zure Domingorekin, zein arrunta zien errazu Dominique.

GEREXENE: Dominik, ba, Dominik, segur nun berak Domingo erraten duela sanho-sanhoa. Ez duzue egian zure fartzuntzekeriez atearaziko.

GAXUXA: Ez segurki lorietan heldu dun gureganat, halabainan gu gaitun haren ahaide hurbilenak.

MARGAITA: Eta bakharrak.

GEREXENE: Bakharrak ez, Pettan eta Domingok bazitenan arreba bat Ttuttina, aski maite zutena, egia erran biziki maitagarria zunan.

GAXUXA: Hura aspaldi hila dun.

GEREXENE: Ba gazte-gaztea geldutu zunan alhargun eta hura ere laster hil zunan bere senharraren ondotik bainan utzi zinan alabaño bat.

GAXUXA: Bazakinat guri eman nahi izan zitenan hazterat ahaide gisa.

GEREXENE: Eta ez zinuten hartu.

GAXUXA: Ez zeren baiginuen jos ahala urratu. Ez baitziren orduan haurrak orai bezala bere arrandekin heldu.

GEREXENE: Nola zuen izena.

GAXUXA: Ahantzi dinat.

GEREXENE: Hura ere nonbait dun.

MARGAITA: Harrek egina du bere bizitzeko segida.

GEREXENE: Segur nun ottok bilhatuko duela. Alabainan hura ere zuek baizen hurbila din.

MARGAITA: Zuk zer ikhusteko duzu bethi sudurra sarthua gure egitate guzietan.

GEREXENE: Ni ixilik egonik ere horiek hola gerthatuko ditun... Zuek ere arraingura izan behar zinukete ume xuxrtxe hartaz.

MARGAITA: Zertako, hura untsa da den tokian.

GEREXENE: Batere ez dakin nola den, ez nun den. Bainan hik ez dun bihotzik ez dun galdegin ere amabixiren berririk jakin eta eri handi zela.

GAXUXA: Ni hemen gostuan ikhusiz egin din ba, untsa zitakela.

GEREXENE: Diruak burua nahasi eta bihotza xukatu dauzute... Gaizo gizona ez zakin norat heldu den.

MARGAITA: Zazi hemendik laster..

GEREXENE: Juhan nun, juhan nun. Jainkoak begira gaitzala ontasunetik holakatze.

GAXUXA ETA MARGAITA

GAXUXA: Habil-habil emazte nahasia.

MARGAITA: Eta ausarta. Zer ikhusteko du horrek gure ahaideetasunetan? Beharrik kanpoan ezarri dut.

GAXUXA: Hik erran, bainan utz dezagun Geexene bere gisa eta erraiten berriak. Nola egin dun hire itzulia?

MARGAITA: Biziki untsa. Zer etxe ederra.

GAXUXA: Gure oraiko hau bano ederrago.

MARGAITA: Ba ederrago aise, eta handiago.

GAXUXA: Aah eta denak araberan bixtan da.

MARGAITA: Ba denak bi sehierie badituzte. Kozinera sukhaldean hura ez dut ikhusi.

GAXUXA: Ez, hi orai barne eder heietako xoria hiz, eta ez sukhalde zokhokoa.

MARGAITA: Eta fillia, zoin untsa emana dabantek txuri hertxiño bat aitzinean eta buruan halako txitxurika pullit bat hura ere xuriu-xuria.

GAXUXA: Guk ere beharko ditiun horiek oro erosi Luixarendako.

MARGAITA: Harek zerbitzatzen zituen janhariak sahetsetik... eta zonbat tresna mota sarra eta furtzetzen puntan jaten dute.

GAXUXA: Jesus, Maria. Nik ez dinat sekulan ikhasiko hola jaten... ez ahal nin bainba aberastu orduko goseak hilen ez jakinez nola apaila... eta Louisek zer zion? Egin daun entradarik?

MARGAITA: Ixila da eta otzan arras jaua hots.

GAXUXA: Ez dauna erran pollita haizela edo afindua... edo halako zerbaiz.

MARGAITA: Ez deuserik, bainan ez du ez gutiago phentsatu.

GAXUXA: Hori dun hori.

MARGAITA: Haratik, ikhusliarra eman dutenean izigarriko entrada egin daut.

GAXUXA: Ah eman dun beraz? Untsa egin dun eta zer? Ederra dudarik gabe halako entrada egin daunaz geroz.

MARGAITA: Ba arras ederra heieri juhan den bezala, erranen dauzut: Lehenik galdatu daiotet zer nituen zor. Ihardetsi dautate ez zutela deusere padarazten hekien etxerat heldu ziener. Ohartua nintzen denetarik bazutela nadai salbu gauza bat: sukraren hartzeko fintxetta, bat baizik ez zuten denentzat. Orduan egun dut erosiko nituela fintxettak bakotxak berea ukhan zezan.

GAXUXA: Zoin untsa.

MARGAITA: Ondo-ondoan baitzen botiga miresgarri bat hartarat juan niz eta galdegin dut dotzena bat sukreaken hartzeko fintxetta ttipi. Botigerak galdatu daut halako kara bitxi bat: dotzena bat?... khario direlakotz nik uste.

GAXUXA: Segur-segura.

MARGAITA: Eta nik berriz burua gorarik ez bainu orai gaztua izitzen: ba dozena bat; gero galdegin daut: botigesa zirea? Ez, emaiiteko ditut. Orduan ikhusiz ez nintzela nornahi ezarri ditu itzulikaturik eta eztekatu biziki polliki eta irriño batekin eman dait.

GAXUXA: Khario pagatu ditun nik uste.

MARGAITA: Ba, arras khario, 35.000 libera, bainan ez dut dolurik.

GAXUXA: Ez ahal dine egun guziez hi bezalako erodunik. Aise egin daun ba saltzaleak irri.

MARGAITA: Eta Luis eta Mayi?... Ikhusi bainitu. Heieik agertzearekin hala loriatu dira nun, ez baitzitakeren irri egitetik ixil. Orduan da, orduan Luis ideki, erdiz erdi khausitu dut zer nahi zuten.

GAXUXA: Hobe, hobe segurki. Nun da Geexene ikhus lezaken heian deneri ez haizenez airerat ohartzen eta gauzak barotik egiten den jende handienek baizen ederki. Ekharri duna potrreta?

MARGAITA: Ez da ez oraino egina... doi-doia hasia.

GAXUXA: Nik uste arraposki ari dun hire ikhusteko estaruaren izaiteko.

MARGAITA: Hori bera egiten dut nik ere. Nun dago Luixa? Beharrik hemen gira, bertzenaz otto ethorri baliz xahu ginen.

GAXUXA: Ikhusi gaitin sartzan nik uste, eta hartako zaun gostuan.

MARGAITA: Baditake ba... Juhan niz ganbelarat phuska hauien farisatzerat.

GAXUXA: No, eramazan hau ere... To, zer da hau?... Behazan eta irakurran.

MARGAITA: *"Ez zeitela grina Gaxuxa. Margaita eraman dut enekin zonbait egunentzat Hotel Eskualduna Hedaiarat... Otto Domingo".*

GAXUXA: Zer erran nahi du horrek?...

MARGAITA: Margaita?... Baina ni hemen niz eta otto ez dut ikhusi ere.

GAXUXA: Hago, Luixa juan othe da harekin erranez Margaita zela?

MARGAITA: Hori bera da. Itsusi zarra...

GAXUXA: Zer neska atrebitua, jandarmeak igorri behar othe ditugu haren ondotik.

MARGAITA: Ez, ez hobe dugu guhaur joaitea.

GAXUXA: Egia dun, otsoak ere ez din bere burua bezalako mandataririk... Uste duzu, zer aitzinekoa.

MARGAITA: Goazen berheala (*txapela emanaz*) Hori, xuti hortik laster.

GAXUXA: Ba, ba heldu nun (*zapetak jauntziz*) ai, ei, ai, ei, ez ditu aberastasunak ere denak arrosa...

HIRUGARREN ZATIA

- DOMINGO** (*bera*): Haizuko nize hatsaren hartzerat ene ilhoba horrek ez nu nehun uzten. Bethi jo eskun, jo ezker denak ikhusi beharrez, haur horrek iduri du baratzusa eta ez da kontent eretxa, ikhusi guziek behar ditu, soineko eta urheriaz erosazia daut jadanik botiga baten muntatzekoa beharrik moltsa azkar dut. Entralekoarekin jin banitz salhu hustuko zautan. Hola-hola ere Gaxuxa alaba iduria bada zeren dut khasu egin. Bertzenaz bien artean tturinduko naute.
- MADDALEN**: Alo ez nuen uste hor zinela jauna, barkha zaduzut hola sartzea, berinen hesterat jina nintzen.
- DOMINGO**: Eginak ditut jadanik.
- MADDALEN**: Uste nuen illobarekin atheratua zinela.
- DOMINGO**: Ez ez dut segitu akhitua niz. Ez dut aise ardietsi phausuan egoitea haur horrek ez din ikhustate mokorik ene adinarentzat, zortzi egun gabe hil araziko nindezake.
- MADDALEN**: Zer nahuzu gaztea da, eta ez daki adinen karga zer den.
- DOMINGO**: Zu ere gaztea zira eta bertze molde duzu.
- MADDALEN**: Horrena eta enea ez da bardin, ni lanean ari behar niz ene biziaren irabazteko.
- DOMINGO**: Hori ere orai arte zerbait ari zen ba bizitzeko.
- MADDALEN**: Ez da ororen jitea bardin.
- DOMINGO**: Zerbait erran ditake.
- MADDALEN**: Nahi duzua kafe presaño bat ekharriko dauzut bero-beroa on eginen dautzu.
- DOMINGO**: Ba, bardin. (*bera*) Hau da hau haur goxoa, bethi bertzez artha du hartuz eta lanean ixil-ixila holako illoba bat iza banu bertzelako izanen ziren ene azken egunak. Aldiz ene horrekin ez dut oren laurden bat goxoki phasatu ahal izan. Hitz bat oraino ez daut erran bere aita zenaz, amaz guti, arras guti, nik zerbait bazen laster xutitzen da eta atheratzen iduri du mentsa

DOMINGO - MADDALEN

- MADDALEN**: Horra jauna edan zatzu, bihotza azkartuko dautzu.
- DOMINGO**: Milla esker... Untsa ona da... Phausuak eta berono hunek arras on egiten dautate.
- MADDALEN**: Nahi duzua hor etzan, oraino hobeki zinitaizke.
- DOMINGO**: Ez, ez orain untsa naiz.
- MADDALEN**: Beraz illoba konten izanen duzu.
- DOMINGO**: Ez soberarik, zeren sarri, nahi bainu joanarazi ez dakit xuxen zer gerthakariren ikhusterat eta ez bainuz joanen... Zabil zu ene orde, on eginen dautzu atheratzeak bethi barne huntan egon gabe.
- MADDALEN**: Sobera ona zira, bainan ez nitake athera, hemen egon behar niz sehier khasu egiteko eta heldu diren jendez artha hartzeko.
- DOMINGO**: Aspaldi hemen zira.
- MADDALEN**: Bi urthe, hemezortzi urthetan jina nintzen.
- DOMINGO**: Eta ordu arte nun zinen.
- MADDALEN**: Zerorekin aita eta ama gazte-gazterik galduak nintuen eta hekiek altxatu nute.
- DOMINGO**: Gaixo haurra. Ez duzu beraz etxeko goxotasuna ezagutu.
- MADDALEN**: Ez eta nahiz serorak biziki onak ziren, eta arras maite nintuen, huts egin dut.
- DOMINGO**: Aise sinhesten zitut, ni ere bakhar-bakharrik bizi izan niz, batere ahiderik gabe inguruan gabe eta bakhartasuna gauza hitsa da.
- MADDALEN**: Orai baratik falilia khausitu duzu.
- DOMINGO**: Ba, bainan badut beldurra orai ere usu bakharrik izanen nitzan. Illoba hunengatik. Ez da segut etxe sokon ez mutxituko ez bifiatuko.
- MADDALEN**: Hori, horra nun heldu den, beraz uzten zaitut.

DOMINGO - MADDALEN

- LUIXA**: Zer diozu otto enhoatua zirea ni gabe?

DOMINGO: Ez batere, phausatu niz, bainuen beharra.
LUIXA: Hobe, orai erakutsiko daitzut erosi phuskak.
DOMINGO: Utz zaitzu horiek eta zati hunat enekin solasean hartzerat goxoki, jakin nahia ditut hemengo berriak.
LUIXA: Bah gero ere jakinen ditutzu... Beha, hau erosi dut euriko bertza hori hotz denean ezartzeko eta hura beztitzeko.
DOMINGO: Zer zira beraz bethi kanpoan erabili behar?
LUIXA: Ez, ez baditut ba etxeoak ere.
DOMINGO: Zure aita zenak bazuen arreba bat.
LUIXA: Ba hiru erer.
DOMINGO: Beraz, amak hiru ahaizpa ditu, eta nun dira heiek?
LUIXA: Zaude... ttantta Katixa etxen eta... ene phuska haukiekin nahasten niz hau bero-beroa etxeo dut, urddin hori arratsaldetako.
DOMINGO: Eta gure arreba horrek hitzean utzi zuen alabaño bat.
LUIXA: Ba baditeke ba.
DOMINGO: Ez dakizua?
LUIXA: Ba badakit ba bainan... Behazazu hau zoin pullita den, azken hundar-hundar modakoa da, karameku kolore ezarri dut atheratzeko.
DOMINGO: Ezarkitzu nahi dituzunean bardin zaut, eta Pettan gizagaixoa noiz hil zen?
LUIXA: Pettan, nungo Pettan?
DOMINGO: Zure aita, nun duzu burua haurra ez zaut iduritzen arras osoa zirela.
LUIXA: Ba, ba, oso-osea niz, hortaz zaude gostuan, bainan hain aspaldi du, aitaren hiltza nun ahantzia bainuen. Errazu Otto hau oro enetat dira?
DOMINGO: Norentzat bada?
LUIXA: Bethikotz?
DOMINGO: Hauxe dituzu galdeak.
LUIXA: Eta orai juhan bagine biak elgarrekin urrun biziki urrun goxo-goxo bizitzeko?
DOMINGO: Zertako urrun? Eta amak zer egin behar luke zu gabe?
LUIXA: Ez dugu elgar soberarik aditzen... Harrek nahiagoko du amabitxiren etxen egon ttantta Katixarekin. Gaixo otto, zurekin nahi nuke goxo-goxoa bizi. Juhan bagine ixil-ixila biak berriz Ameriketarat.
DOMINGO: Baduzu burutik... Ni handik hunat heldu ene azken egunen phasatzerat eta jin orduko berriz harat itzul ez du etxrarik.
MADDALEN: Sar zirezte. (*Otto erakutsiz*) Hara non den.
LUIXA (*buruari lothua*): Oi, ei. Nola jakin dute hemen girela. Xahu niz (*gordetzen da xoko batean*)
MARGAITA: Oh, otto. Azkenean khausitzen zaitugu (*besarkatuz*). Ni Margaita niz zure illoba eta horra ene ama Gaxuxa.
DOMINGO: Zu Margaita?
MARGAITA: Ni Margaita. Eta zu otto Dominique?
DOMINGO: Ni otto Domingo. Ba, bainan zenbat illoba Margaita ditut?
MARGAITA: Bat bakharrik eta hura ni niz.
GAXUXA: Eta ni Gaxuxa, Pettan zenaren emaztea, zure koinata.
DOMINGO: Bertze hori nor da beraz.
MARGAITA: Zer bertze?
DOMINGO: Norat jua da ala urthu da?... Margaita nun zira? Ager zite...

(*Hora ari direlarik MARGAITAk denetan xerka dabila eta ikhusten du*)

MARGAITA: Ah hi hiza baninan beldurra. Itsusi tzar, atrebitu zikina (*besotik hartuz*) behazague afimendura huni, ez baita ahalge.
GAXUXA: Jandarmeak hunat laster, jandarmeak.
DOMINGO: Nor duzu hori?
GAXUXA: Hau gure neskatoa, etxen utzia ginuen zure beha, galdea ukhan ik ama eri handi nuela.
DOMINGO: Ba, erakutsi daut galde eta nola duzu ama?
GAXUXA: Orai untsa eta uste duzua zer egin dauku... Ez ahal da bertze holakorik iguzkiaren azpian... Preso igorri behar haitugu orai berean.
MARGAITA: Ohaina, ohaina.

LUIXA: Zer ebatsirik, ez dut deusik ebatsi.
MARGAITA: Ez othe? Lehen-lehenik otto.
LUIXA: Berak erran dait horren illoba nintzela eta nik onhartu.
MARGAITA: Eta hauiek oro zer dira? Ez dituna ebatsiak...
LUIXA: Ez, ez ditut ebatsi ukhan ditut.
GAXUXA: Hago ixilik hortik gezurti tzarra.
MARGAITA: Ohaina, gezurtia, denak baditun.
LUIXA: Zu ere gizurtia zira ez zinen batere.
MARGAITA: Zer erraiten dun? Aditzen duzua ni gezurtia.
LUIXA: Ba, zu ez zinen.
MARGAITA: Hi ba, hi.
LUIXA: Zu, zu, zu.
MARGAITA: Hi, hi, hi hizan bezalako.
DOMINGO: Othoi ixil zitezte iduri duzue buhamiak
MARGAITA: Habil laster hemendik aditzen du.
GAXUXA: Hire onetan... bertzenaz...
LUIXA: Erran eta...
MARGAITA: Orain berean ez bahiz johan, bortxaz igorriko hiatugu.
DOMINGO: Norat jin niz. Ameriketako salbaiak baino ariakoak zirezte.
LUIXA (DOMINGOri buruz): Erran gogo dautzut zerbait.
MARGAITA: Ez dun egia.
LUIXA: Ez nu mintzatzerat utzi nahi baiteaki.
MARGAITA: Hi bezalako gezurti ahoa josirik kanporat botatu behar litaken.
LUIXA: Erran eta.
GAXUXA eta MARGAITA: Ez dun deusirik erraiteko. Nahasi tzarra ez bertzea, zer dun oraino ere bertze zerbait gezur erran nahi.
LUIXA: Ez egia dut, egi-egia (*OTTOri buruz*), erran behar dautzut.
GAXUXA: Hutsa gezurra dun.
LUIXA: Ez, ez, ez.
GAXUXA eta MARGAITA: Ba, ba, ba.
MADDALEN: Zer dituzu oiho horiek.
LUIXA: Ez dute nahi aditu baitakite zer erranen dutan.
MARGAITA: Hundar aldikotz habil edo juhanen jendarme bilha.
LUIXA: Erran gabe ez niz joanen...
MARGAITA: Hago ixilik eta habil laster.
DOMINGO: Hots utz zazue bada erran gogo duenaren erraiterat gero ikhusiko dugu.
LUIXA: Margaita ez zen amarekin.
MARGAITA: Gezurra dun.
LUIXA: Ez egia dut, ez zen zure behar egon nahi erranez...
MARGAITA: Nahi duna mazaleko bat.
DOMINGO (MARGAITAri buruz): Zaude nonbait. (*LUIXAri buruz*) Erranez zer?
LUIXA: Ez zituela bada onak huts egin nahi otto zahar baten...
MARGAITA: Oh zer behar den aditu.
DOMINGO: Ixil. (*LUIXAri buruz*) Otto zahar baten...
LUIXA: Kherruen eta arrainguren aditzeko eta haren errumatismen tratatzeko.
MARGAITA: Ez zazula zinhets neska hihuingarri hori.
LUIXA: Ba, zinhets nezazu egia dut eta oraino uztarka ari zen heiek erraiten.
MARGAITA: Oh, oh, oh, suntsi hin dezaket neska zorphila tzarra.
DOMINGO: Nun zen beraz?
LUIXA: Donibanen "*Villa Bichta-Eder*", Andere Mayi Goradagoren etxean.
MARGAITA: Ez, ez nintzen han, lehenago izana nintzen orain amabitxi gaixo eri handi zenaren ikhuesterat joana nintzen.
LUIXA: Gezurra du.
GAXUXA: Ez zazula zinhets aski froga eman dauku bere buruaren ezaguarazteko.
LUIXA: Horiek denak egiak ditut.
GAXUXA eta MARGAITA: Ez, ez, ez.
LUIXA: Ba, ba, ba.

DOMINGO: Orai denak ixil. (Telefona hartuz) Allo, allo, Margaita zeinu hor zena noiz jina zen... noiz jua da... milesker. Jakin dut egia zuen Donibanen zinen. Eta orai badut aski, zazte denak bixtatik ez ziuztet gehiago batzu ez bertze ikhusi nahi.

MARGAITA: Bainan otto... Neska tzar hunengatik.

DOMINGO: Denak saski berean ezartzeko on zirezte... Juan hemendik laster. Basaburuko Otxolondroe zokhoke hobeak zirezte.

MADDALEN: Basaburut Otxolondroe... ene ama ere hangoa zen.

DOMINGO: Nola zuen izena.

MADDALEN: Gazte denboran Ttuttina zeinu.

DOMINGO: Beraz ene arreba zen. Zeinu ba, nik zeinu erraten dut Ameriketari bezala. Gisa hortan zu Maddalen zira.

MADDALEN: Ba, Maddalen.

MARGAITA: Oh, ene kusi gaixoa (*besarkatu nahiz*).

DOMINGO: Zer hor zireztea oraino? Juan laster ez baduzue nahi jandarmekin kanpoan ezartzea. Ez duzue orai arthe axola handirik izan huntaz.

(Kanporat juhan dira)

MADDALEN: Ni naiz beraz orai zure illoba?

DOMINGO: Illoba eta alabixia orhoit niz, ene lehen irabaziekin igorri nuela zuretzat medaila bat.

MADDALEN: Beha, hau dea?

DOMINGO: Hori bera, beraz ez baxharrik lehen irabaziaki bainan bertze guziak ere zuretzat izanen dira.

MADDALEN: Gaixo orro. Orai biek ezagutuko dugu familiako goxotasuna zer den.

DOMINGO: Eta kalapit horien ondotik atsegin izanen dut bakean bizitzea.

Jainkoak dituela eskerrak